

Lourdes Oñederra

Denbora aurrera omen doa



Louis Vuitton-en poltsa garestiak edo Pradaren betaurrekoak nabarmen daramatzatenak, dominak paparrean jartzen dituzten militarrek edo jandako arerioaren hezurak lepotik zintzilikatzen dituzten kanibalak gogorarazten dizkirate. *Mutatis mutandis* noski, *mutatis mutandis*... Baina badute zalantzarik gabe haiekin batzan zerbait: botere, ahalmen, besteak baino gehiago izatearen erakusketari. Gure gizarte kontsumista honetan ezaguna da askorentzat zenbat balio duen dirutan halako poltsak, betaurreko horiek edo marka jakin bateko erlojuak. Lehen baino errazagoa da. Ez da dendako erakusleihora hurbildu behar ere, are gutxiago galdetzera sartu. Ordenagailuak esango digu nahi duguna. Gauza horiek, marka bista-bistan dutela, erakusten dute darrazmatzanean prezio izugarri horiek ordaintzeko dirua baduela edo, behintzat, izan duela –edo erregalo hori egin dionak... baina, tira, ez dut gaur aritu nahi maizegi emakumeak izaten diren horien patetikotasunaz–.

Gutxiago axola du kalitateak, lehengaiaren ontasunak, goi mailako edertasunaren plazerrak –gehienek ez dituzte bereizten, puntu batetik aurrera bederen–. Eta horregatik dira horren arrakastatsu marka garestien imitazioak, gaurko gizarte honen kutretasunaren erakusle ezin hobea dena, nire ustez: ez direnak baina badiruditenak.

Horren garatua eta zabaldua omen dago industria hori, non mailak bereizten baitiren imitazioen artean: kaleko bazterretan manta gainetan eskaintzen zaizkigunetatik denda dotoreetan edo internetez saltzen dizkiguten batzuetaraino. Dior perfektua da –esaten dizu saltaileak–, ez du inork nabaritutako. *Porca miseria*.

Zertarako, otu zitzaidan nire ergeltasun despistatuan, badirudiena baina ez dena? Nahiko ulertzen ez duenaren miresmena lortzeko? Bere ezin eramana? Maitasunik ezean inbidia?



INGO AZKONA

“Benetako” markena da errua, beren ikur eta logo nabarmenegiak hasi zirenetik, ez zutenetik nahiko izan ezagutzaille on eta leialaren aukerarekin. Irakurri dut benetako horiek imitazio batzuk ere bere menpe dituztela beren inperioa erosle pobreagoei ere zabalduz, horrela lorturik etengabe erosaraztea denei, zapata pare on bat erosteko dirua ez duenak, kaxkarxeagoa edo erabat txarra erosiko du eta lehenago hondatuko zaio eta garestiago aterako zaio finean benetako zapata onak erosteko dirua izan duenari baino, baina bai batak eta bai besteak erosi egingo dute, etengabe, inoiz asetu gabe, erosi eta erosi: behar den itxura, behar den marka erakusteko.

Honela bada, beste uda bat bukatu zaigun honetan. Nik behintzat beste batzuetan baino denbora gehiago izan dut ingurura begira egoteko eta, hara zeri erreparatu diodan... Bitartean udazkena iritsi da eta egunerokotasunaren laztasun zahar eta berriak:

Zaharren artean, gure Herriko trenbide exkak eta zarpailak –zergatik ez zaie bururatuko gure agintari nazionalistei Euskadi Espainiatik bereiztea hiri-buruak tren txiki sarriz lotuaz eta kamioiak trenetan sartuaz?–.

Berrien artean, hiritar on izateko ikasgai berezia izango dute ikasleek –zergatik ez zaie bururatuko gure agintari nazionalistei Euskadi Espainiatik bereiztea hemengo umeei erakutsiaz ahotza kontrolatzen, orroka ez hitz egiteko gauza izan daitezen handitzen direnean?–.

Guztien gainetik, ordea, denbora geldirik balego bezala, Vuitton eta garraio publikoa eta kutsadura akustikoa itzal zital tragiko batez estaliaz, ETA berera, bere ideien alde ez daudenak mehatxatuz, hil egingo dituela iragarritz eta gure herri honen alde egingo duela sinetsarazi nahian.

Bitartean gu, beste euskaldunok, negurako zapatak erosten. ■

Zergatik ez zaie bururatuko gure agintari nazionalistei Euskadi Espainiatik bereiztea hemengo umeei erakutsiaz ahotza kontrolatzen, orroka ez hitz egiteko gauza izan daitezen handitzen direnean?